



ORIOKOUNDALA

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2011ko urriaren 27a, osteguna

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 20:00      **BUKATZEKO ORDUA:** 20:35

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Beñat Solaberrieta Albizu

**Zinegotziak**

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Ekiñe Saizar Larrañaga, Amaia Dorronsoro Portularume, Miriam Uranga Egurza eta Jokin Izagirre Zabala.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

**BERTARATU EZ DIRENAK:**

Angel del Hoyo Bravo zinegotziak (EAJ) eta Bixente Lasa Karrikaburu zinegotziak (Bildu) ez dute bilkuran parte hartu, herritik kanpo daudelako.

Gai-zerrenda irakurri aurretik, alkateak hartzen du hitza eta udalbatzakideei proposatzen die gai bat sartzea gai-zerrendatik kanpo, Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektorearen —Munto— garapen urbanistikoak sortu dituen bi kale berriei (Munto kalea eta Palota kalea) izena emateari buruzkoa, sektore horren garapen urbanistikoko sustatzaile pribatuek hori lehenbailehen egiteko eskatu baitute.

Gai-zerrendan gai hori sartzeko proposamena bozkatzeko proposamena bozkatzeko da; udalbatzak **AHO BATEZ (HAMAIKA BAIEZKO BOTO;** gehiengo absolutua, beraz) urgentziakotzat jotzen du eta, beraz, onartu egiten du alkatearen proposamena.



## Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Urola Kostako Udal Elkarteko zuzendaritza batzordeko ordezkari kideak izendatzea, Orioko Udalaren ordezkari gisa.
- 2.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, Orioko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren 9. artikularen aldaketari.
- 3.- Onartzea, egoki bada, oinarriak, Orioko AIU3 eremuan —Hondartza— Udalak sustatutako 4 etxebizitza tasatu adjudikatzeko eta Orioko Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzeko.
- 4.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 10/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 6.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak aldatzea 2012rako, Urola-Kosta eskualdean.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren Barne Araudia.
- 8.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, elektrizitatea sortzeko eguzki-plaken instalazioa arautzen duen udal ordenantzaren aldaketari.
- 9.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEKO ORDEZKO KIDEAK IZENDATZEA, ORIOKO UDALAREN ORDEZKARI GISA**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalbatzarrak, 2011ko uztailaren 7an egindako ezohiko bilkuran, Beñat Solaberrieta Albizu alkatea (Bildu) eta Noemi Ostolaza Arkauz zinegotzia (EAJ) izendatu zituen Orioko Udalaren ordezkari titular Urola Kostako Udal Elkartearen zuzendaritza batzordean; alkateak orain proposatzen du ordezkari kideak izendatzea organo horretarako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



- 1.- Amaia Dorronsoro Portularrume zinegotzia (Bildu) eta Jon Redondo Lertxundi zinegotzia (EAJ) Orioko Udalaren ordezkoko kide **IZENDATZEA** Urola Kostako Udal Elkarteko zuzendaritza batzordean.
- 2.- Urola Kostako Udal Elkarteari Udalaren erabaki honen **BERRI EMATEA**, jakin dezan eta horren ondorioz joka dezan.

## **2.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL ETXEBIZITZA TASATUAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN 9. ARTIKULUAREN ALDAKETARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko urriaren 10ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; kontrako botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), eta Dorronsoro (Bildu), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

- 1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzaren 9. artikulua aldaketari; artikulua idazketa berriak honela dio, hitzez hitz:

### **9. artikulua. ORIOKO UDALERRIAN BIZI IZATEARI BURUZKO BALDINTZAK.**

*Titular izango direnetatik gutxienez batek herrian erroldatuta behar du, etenik gabe, oinarri hauek onartu baino 10 urte lehenagotik; edo, etenik egon bada, 15 urtetan, baldin eta, betiere, data horretan erroldatuta badago.*

*Nolanahi ere, baldintza horiek betetzen dituzten eskatzaileek ez badute eskaintza asetzen, Udalak aukera izango du gelditzen diren udal etxebizitza tasatuak bi baldintza horiek betetzen ez dituzten eskatzaileei adjudikatzeko; azken kasu horretan, lehentasuna izango dute oinarriak onartzen direnean erroldatuta daudenek.*

- 2.- **JENDAURREAN JARTZEA** udal ordenantzaren aldaketa hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita. Udal ordenantzaren aldaketa hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantzaren aldaketa, beste erabakirik hartu beharrik gabe.



Emandako botoa azaltzeko, alkateak hartzen du hitza, Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, udal etxebizitza tasatuak eskuratzeko baldintzatan erroldatze-epe txikiagoak ezartzearen alde daudelako eta onartu den aldaketak ez duelako jasotzen Bilduk proposatzen duena.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, OINARRIAK, ORIOKO AIU3 EREMUAN —HONDARTZA— UDALAK SUSTATUTAKO 4 ETXEBIZITZA TASATU ADJUDIKATZEKO ETA ORIOKO KALE NAGUSIAN SUSTAPEN PRIBATUKO 25 UDAL ETXEBIZITZA TASATU ADJUDIKATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko urriaren 10ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:

**1.- ONARTZEA** oinarriak, Orioko AIU3 eremuan —Hondartza— Udalak sustatutako 4 etxebizitza tasatu adjudikatzeko eta Orioko Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzeko. Oinarriak, hitzez hitz, hauek dira:

#### **OINARRIAK, ADJUDIKATZEKO ORIOKO HONDARTZA SEKTOREAN UDALAK SUSTATUTAKO 4 UDAL ETXEBIZITZA TASATU ETA ORIOKO KALE NAGUSIAN SUSTAPEN PRIBATUKO 25 UDAL ETXEBIZITZA TASATU**

##### **1.- HELBURUA**

*Oinarri hauen helburua da baldintzak ezartzea, adjudikatzeko Orioko Hondartza sektorean Udalak sustatutako 4 etxebizitza tasatu eta Orioko Kale Nagusian sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu; adjudikazioa zozketa publikoz egingo da.*

##### **2.- EZAUGARRIAK**

*Aipatutako udal etxebizitza tasatuak jabetzan adjudikatuko dira. Sustapen pribatuko 25 etxebizitzak udal etxebizitza tasatuen erregimen orokorraren arabera arautuko dira eta Udalak sustatutako 4 etxebizitzak, udal etxebizitza tasatuen erregimen bereziaren arabera.*

*Eranskinak etxebizitzetara lotuak izango dira; beraz, etxebizitza erosteak eranskinak ere erostea ekarriko du eta eranskin horiek ezin izango dira aparte transmititu.*



*Legearen arabera, horrela kalifikatutako udal etxebizitza tasatuek, eta lotuta dauzkaten garaje eta trastelekuek, etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra izango dute. Beraz, modu iraunkorrean egongo dira lotuta bai Orioko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzetan ezarritako gehienezko transmisio-prezioari eta bai lehentasunez erosteko eskubideari eta atzera eskuratzeko eskubideari; eskubide horiek, lehenik, Orioko Udalak dauzka eta, nolana ere, bigarrenik, Euskadiko Erkidegoko Administrazio Orokorrak.*

## **1.- Udal etxebizitza tasatuen lagapena eta beharrezko baimena**

*Adjudikatutako udal etxebizitza tasatuak ezin izango dira errentan edota prekarioan laga, Orioko Udalak ez badu horretarako baimena espresuki ematen.*

*Eskaria aurkeztu eta hiru hilabeteko epean Udalak ez badu espresuki baimena eman, baimena ukatuzat joko da.*

## **2.- Kontratuen oniritzia**

*Udal etxebizitza tasatuak jabetza osoan transmititzeko kontratu guztiek Orioko Udalaren oniritzia beharko dute eta ezin izango dira erregistratu Jabetzaren Erregistroan oniritzi hori gabe.*

## **3.- Prezioaren kontura emandako zenbatekoak**

*Sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatuen adjudikaziodunek etxebizitzaren eta bere eranskinen prezioaren %10 ordainduko dute, salerosketa kontratua sinatzerakoan; zozketa publikoa egin eta, gehienez, hiru hilabeteko epean sinatuko da kontratu hori.*

*Era berean, adjudikaziodunak behartuta egongo dira etxebizitzaren eta eranskinen prezioaren %10 ordaintzera salerosketa kontratua sinatu eta, gehienez, sei hilabeteko epean.*

*Azkenik, adjudikaziodunek eskritura publikoa eman aurretik ordainduko dute etxebizitzaren eta eranskinen prezioaren gainerako %80.*

*Udalak sustatutako 4 udal etxebizitza tasatuen adjudikaziodunek etxebizitzaren eta bere eranskinen prezioaren %10 ordainduko dute, salerosketa kontratua sinatzerakoan; zozketa publikoa egin eta, gehienez, hiru hilabeteko epean sinatuko da kontratu hori.*

*Ordainketak ez badira goian aipatutako epeetan egiten, etxebizitza eta eranskinen adjudikazioa bertan behera geratuko da eta, kasua balitz, salerosketa-kontratua ere indarrrik gabe geratuko da.*

## **3.- EROSTEN BAIKUNTZAK**

*Interesatuak honako baldintzak bete beharko dituzte:*



## **1.- Adin nagusikoa edo emantzipatua izatea**

### **2.- Etxebizitza behar izatea**

**2.1** Elkarbizitza-unitateko kideetatik inork ezin izango du etxebizitzarik eduki jabetzan, jabetza soilean, azalera-eskubidean edo gozamen-eskubidean lehen transmisioa egiten deneko behin-behineko kalifikazioaren data baino bi urte lehenagotik eta bigarren eta hurrengo transmisioetako bisatuak aurkezteko data baino bi urte lehenagotik.

Egoera horretan egon beharko dute salerosketaren eskritura publikoa egiten den arte.

**2.2** Oinarri hauen ondorioetarako, ulertuko da etxebizitza librea gero erosteko kontratua sinatua dutenek ez dutela etxebizitzarik ez izateko baldintza hau betetzen.

Goiko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, etxebizitza-premiaduntzat hartuko dira, oro har etxebizitza bati buruz edo, 5. idatz-zatiko kasuetan, etxebizitza bati edo gehiagori buruz aurreko artikuluan adierazitako eskubide errealetako baten titularra izanik, honako egoera hauetako batean daudela egiaztatzen duen dokumenturik aurkezten duten pertsonak:

**2.2.1** Etxebizitza Euskal Autonomia Erkidegoan kokatua egotea, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren (babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen arloko finantza-neurriei buruzkoa) 17.3 artikuluan ezarritako erreferentzia-data baino gutxienez bost urte lehenago eskuratu izana, eskatzailearen ohiko eta behin betiko etxebizitza izatea, eta ondare urbanizatu eta eraikiaren birgaitze-arloko jardun babestuei buruzko azaroaren 30eko 317/2002 Dekretuan edo ordeztan duen araudian ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez betetzea.

Eraikuntza-konponbideak onartzen dituzten hutsuneak ez dira kontuan hartuko, eta arlo horretan eskumena duen teknikari baten txostena aurkeztu beharko da. Nolanahi ere, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Lurralde Bulegoetako zerbitzu teknikoek aurkako txostena eman ahalko dute, eta loteslea izango da hori.

**2.2.2** Banantze- edo dibortzio-prozesu baten ondoren, etxebizitza beste ezkontidearen familia-etxebizitza gisa judizialki adjudikatu bada, edo prozedura horren ondorioz besterendu bada, eta horren ondorioz, hipoteka-kargaren ordaintzeke dagoen zenbatekoa kendu ondoren, ezkontide bakoitzak gehienez 75.000 euro eskuratu baditu.

Izatezko bikoteak banantzen direnean ere gauza bera egingo da.

**2.2.3** Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza izatea, araudi aplikagarriaren arabera irisgarritasun-baldintzak ez biltzea, eta titularra edo titularrak 70 urte edo gehiagoko pertsonak izatea.



**2.2.4** Bizikidetz-unitateko kideren bat Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen etxebizitza baten jabe izatea, betiere etxebizitza horren azalera, guztira, pertsona bakoitzeko 15 m<sup>2</sup> erabilgarriko ratioa baino txikiagoa dela.

Bizikidetz-unitatea dela ziurtatzeko, guztiek gutxienez urtebetez etxebizitza berean erroldatuak egon izanaren ziurtagiria eman beharko dute. Urtebeteko epeari dagokionez, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 3. idatz-zatian kasu bakoitzerako adierazten den egunetik zenbatuko da.

**2.2.5** Herentzia edo dohaintzaren bitartez titularkidetasunean eskuratutako etxebizitza bat edo batzuk izatea, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Edozein titularkidetasun-ehuneko ezin izango da % 50etik gorakoa izan.

b) Etxebizitza-partaidetzen balioa edo partaidetzak eskualdatzetik lortutako zenbatekoa ezin izango da 75.000 euro baino handiagoa izan, betiere hipoteka-kargaren ordaintzeke dagoen zenbatekoa kenduta.

**2.2.6** Era berean, bizikidetz-unitateko kideren bat mugikortasun mugatu iraunkorreko ezintasuneko egoeran baldin badago, etxebizitza-premia duela ulertuko da, betiere dokumentuekin honako hau egiaztatzen badu:

a) Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan —hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen, eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen— bildutako sarbide eta jasogailuei buruzko xedapenak betetzen ez dituen Euskal Autonomia Erkidegoko eraikin batean dagoen etxebizitza izateak.

b) Erosi edo alokatuko den etxebizitzak aurreko idatz-zatian sarbide eta igogailuei buruz adierazten diren zehaztasunak betetzea.

Ildo horretatik, minusbaliotasun-gradua aitortzeko, deklaratzeko eta kalifikatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinean jasotako arteen, organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez honako egoera hauetakoren batean daudela egiaztatzen dutenak hartuko dira mugikortasun mugatu iraunkorra duten ezindutzat:

1) Gurrpil-aulkian betiko egon behar dutenak.

2) Ibiltzeko nahitaez bi makulu behar dutenak.

3) D eta H idatz-zatiei dagokienez 7 puntu edo gehiago batzen dituztenak.

Aurreko 3., 4. eta 6. kasuetan aipaturiko etxebizitza-titularrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku jarri beharko dute etxebizitza, karga eta okupatzailerik gabe.



### **3.- Bizitokia**

*Titular izango direnetatik gutxienez batek herrian erroldatuta behar du, etenik gabe, oinarri hauek onartu baino 10 urte lehenagotik; edo, etenik egon bada, 15 urtetan, baldin eta, betiere, data horretan erroldatuta badago.*

*Nolanahi ere, baldintza horiek betetzen dituzten eskatzaileek ez badute eskaintza asetzen, Udalak aukera izango du gelditzen diren udal etxebizitza tasatuak bi baldintza horiek betetzen ez dituzten eskatzaileei adjudikatzeko; azken kasu horretan, lehentasuna izango dute oinarriak onartzen direnean erroldatuta daudenek.*

### **4.- Sarrerak**

#### **4.1 Sarrera ponderatu gehienezkoak eta gutxienezkoak:**

*Udal etxebizitza tasatuen onuradunen gehienezko sarrerak, euskal autonomiako arauetan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, ezin dira izan Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako aukera izateko ezarrita dauden gehienezko sarrerak bider 1,5 baino handiagoak.*

*Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gehienezko sarrerak, euskal autonomiako arauetan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, ezin dira izan Erregimen Orokorreko Babes Ofizialeko Etxebizitzetarako aukera izateko ezarrita dauden gehienezko sarrerak bider 1,3 baino handiagoak.*

*Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxienezko sarrera ponderatuak ezin dira izan etxebizitza sozialetarako (erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak) aukera izateko ezarrita dauden gehienezko sarrerak baino txikiagoak.*

#### **4.2 Sarreren jatorria.**

*Gehienezko sarreren betekizun hori betetzat eman ahal izateko, exijituko da sarrera horien %90 gutxienez lanetik edota jarduera ekonomiko, profesional eta artistikotik edota beketatik edota errenta sozialetatik (oinarrizko errenta) etortzea.*

#### **4.3 Sarrera konputagarriak.**

**4.3.1** *Dagokion PFEZaren aitorten(ar)en Zerga Oinarria konputatuko da. Hala ere, laneko errendimenduen kasuan, kontuan hartuko dira Zerga Oinarri horri gehitzen zaizkion hobariak ere, batuketa eginda.*

*PFEZaren aitortpena Euskadin egiteko obligaziorik ez duten pertsonen kasuan, kontzeptu guztietan kreditatutako sarrera gordinen %95a hartuko da kontuan.*

**4.3.2** *PFEZtik salbuetsita dauden errentetatik datozen sarrera ponderatuak zehazteko, honakoak hartuko dira kontuan:*





a) Laneko eta langabezia-prestazioko errendimenduen kasuan, kontzeptu guztietan kreditatutako sarrera gordinen %95a hartuko da Zerga Oinarritzat.

b) Pentsio eta laguntzen kasuan, kontzeptu guztietan kreditatutako sarrera gordinen %100a hartuko da Zerga Oinarritzat.

**4.3.3** Pertsona bereizi, dibortziatu eta alargunen sarrerak zehazteko, PFEZaren aitortpenaren bidez edo bestela kreditatu behar diren sarrerak elkarbizitza indarrean zegoen denbora-aldi bati dagozkionean, honako irizpideak aplikatuko dira:

- Erregimena irabazpidezkoa bazen, bikotearen sarreraren %50a konputatuko zaie.

- Erregimen ekonomikoa ondasun-banaketarena bazen, eskatzailearen sarrerak bakarrik konputatuko dira.

**4.3.4** PFEZaren aitortpena aurkezteko obligazioa badago, Foru Haziendaren aurrean edo beste Zerga Administrazioaren baten aurrean aurkeztutako PFEZan aitortutako sarrerak bakarrik onartuko dira behar bezala kreditatutako sarreratzat.

**4.4** Sarrerak jasotzen dituzten pertsonak eta aldi konputagarria.

**4.4.1** Udal etxebizitza tasatuaren kotitular izango diren elkarbizitza-unitateko kide guztiak sarrera konputagarriak jasotzen dituzten pertsonatzat hartuak izango dira.

**4.4.2** Aldi konputagarria.

Behin PFEZaren aitortpena aurkezteko epea pasata, lehen transmisioetarako oinarri hauen onarpen data baino lehenagoko eta bigarren eta hurrengo transmisioetako bisatuak aurkezteko data baino lehenagoko zerga-aldia.

**4.5** Sarreraren ponderazioa.

**4.5.1** Sarreraren ponderazioa irizpide hauen arabera egingo da:

a) Ponderatu beharreko elementuak:

- Diru-sarrerak, oinarri hauetan eta martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

- Etxebizitzan biziko den bizikidetz-unitateko kideen kopurua.

- Diru-sarreraren %20 gutxienez irabazten duten bizikidetz-unitateko kideen kopurua.



b) Aurreko zenbakian aipatutako diru-sarreraren ponderazioa honako formula honen arabera egingo da:

$DP = DK \times N \times A$ , honako hauek izanik:

*DP*: diru-sarrera ponderatuen zenbatekoa.

*DK*: Diru-sarrera konputagarriak, Dekretu honen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

*N*: ponderazio-koefizientea, bizikidetz-unitateko kide-kopuruaren arabera.

*A*: Ponderazio-koefizientea, diru-sarreraren %20 gutxienez irabazten duten bizikidetz-unitateko kideen kopuruaren arabera.

c) *N* eta *A* ponderazio-koefizienteak, urteko diru-sarrera haztatuak zehazteko aplikatu beharrekoak, honako hauek izango dira:

*N*

Kide 1: 1,00

2 kide: 0,95

3 kide: 0,90

4 kide: 0,85

5 kide: 0,75

6 kide: 0,65

7 kide: 0,55

7tik gora: 0,50

*A*

Hartzaile 1: 1,00

2 hartzaile: 0,90

3 hartzaile edo gehiago: 0,85

**4.5.2** Sarreraren ponderazioa ez da inoiz izango eskatzaileak kanpoan uzteko arrazoia, ponderazio hori dela-eta ez badira oinarri hauetan aurreikusitako sarrera minimoetara iristen.

**5.- Beste etxebizitza babestu baten adjudikazioduna ez izatea**



*Onuradun gertatzen diren pertsonen honako betekizuna bete beharko dute: azken bi urteetan ez izatea sustapen publiko zein pribatuko beste etxebizitza babestu baten adjudikazioduna. Hala ere, errentako babes ofizialeko etxebizitza baten onuradun izan direnek aukera izango dute gero jabetzako udal etxebizitza tasatu baten onuradun izateko.*

*Egoera horretan egon beharko dute salerosketaren eskritura publikoa egiten den arte.*

## **6.- Kontratu eskrituratu eta formalizatzea**

*Beharrezkoa izango da, baita ere, kontratu eskrituratu eta formalizatzearen betekizuna betetzea.*

*3. gradurainoko lerro kolateraleko odol-ahaidetasunez eta 2. gradurainoko afinitatez osatutako elkarbizitza-unitateen kasuan, eta baita irabazpidezko erregimenean ezkonduetako ezkontideen kasuan, zati berdinetan eskrituratu beharko da eta kotitular izango direnek sinatuko dute kontratua.*

*Ondasunen banaketa erregimenean ezkonduetako ezkontideek eta izatezko bikoteetako kideek ez dute kontratu zati berdinetan eskrituratu eta formalizatzeko obligaziorik izango, eta nahi duten portzentajea egin ahal izango dute.*

## **4.- ESKARIAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA**

*Orioko udal bulegoetan, GAOn oinarri hauek argitaratu eta hilabeteko epean, honako egun eta orduetan:*

*Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara.*

## **5.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

*Oinarri hauetan adierazitako baldintzak betetzen direla kreditatzeko, honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:*

*a) Eskari-ereduan ezarritakoak, kasu bakoitzaren arabera.*

*b) Eskatzailearen eta, kasua bada, ezkontidearen familia-liburua eta NANA.*

*c) Udal errolda-agiria.*

*d) Sarrerak dituzten elkarbizitza-unitatearen kide guztien PFEZaren azken aitortpenaren, pentsioaren edota nominen fotokopia eta jatorrizkoa, alderatu ahal izateko.*

*e) Elkarbizitza-unitateko kideren bat langabezia badago, INEMen bidez kreditatu beharko du. Gainera, jasotako laguntzak eta jasotzeko dauzkatena aurkeztu beharko dituzte.*



f) Etxebizitzan biziko diren elkarbizitza-uniteko kideen zerrenda eta horiek sortzen dituzten sarreren ziurtagiria.

## **6.- LEHENTASUNEN BALORAZIOA ETA ZOZKETA**

Zozketatzen diren etxebizitzak honela banatuko dira:

- Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatu 1, egokitua mugikortasun mugatu iraunkorra duten desgaituentzat.
- Erregimen orokorreko 24 udal etxebizitza tasatu.
- Erregimen bereziko 4 udal etxebizitza tasatu.

3 zozketa egingo dira; aurrenekoa mugikortasun mugatu iraunkorra duten desgaituen artean, bigarrena erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen eskatzaileen artean, eta hirugarrena erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen eskatzaileen artean.

Desgaitu bat egokitzen bada erregimen orokorreko etxebizitza baten adjudikaziodun, Udala ez da behartuta egongo etxebizitza hori egokitzea eta egin beharreko egokitze-lanak onuradunaren kontura izango dira.

Udal etxebizitza tasatuen adjudikaziodun gertatzen ez direnak itxaronzerrenda batera pasako dira, bakoitza bere ordena-zenbakiarekin.

Etxebizitzaren aukeraketa zozketaren unean egingo da eta etxebizitza bat adjudikatuko da eskariko.

Notario batek edo Orioko Udaleko idazkariak zozketaren eta bertako gorabeheren akta jasoko du.

## **7.- ESKARIAK**

Oinarri hauetako 5. artikuluan aipatutako dokumentazioa eskariari erantsiko zaio. Udalak beste edozein dokumentazio eska diezaieke interesatuei. Interesatua behartuta dago dokumentazio hori 15 eguneko epean aurkeztera, jakinarazpena jasotzen duen egunaren hurrengotik kontaktzen hasita.

Eskatzaileek ez badute eskatu zaien dokumentazioa aurkezten, zozketatik kanpo geratuko dira.

## **8.- ONARTUEN ZERRENDA ETA ERREKLAMAZIOAK**

Orioko Udalak 30 eguneko epea izango du, gehienez, eskariak aurkezteko epea bukatzen denetik, eskariak aztertze eta betekizunak betetzen dituztela ziurtatzeko; behin hori eginda, onartuen zerrenda proposatuko du, epearen barruan eta behar bezala aurkeztu diren eskariekin.



Zerrenda udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da eta interesatuek (zerrendan egonagatik, kaltetuta sentitzen direnek eta kanpoan geratu direnek) aukera izango dute erreklamazioak aurkezteko 15 eguneko epean.

## **9.- BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ETA ITXARONZERRENDA**

Behin erreklamazioak erabakita, iragarki-taulan argitaratuko da zein egun eta ordutan egingo den zozketa, notario aurrean edo fede publikoaren funtzioa betetzen duen pertsonaren aurrean. Zozketa udal aretoaren batean egingo da.

Behin zozketa eginda, adjudikaziodunen behin-behineko zerrenda argitaratuko da; zerrenda horrek jasoko du:

- Zerrendako ordena-zenbakia

- Aukeratuen izena, NAN zenbakia eta gaur egungo helbidea

Era berean, onartuta geratuko dira desgaituen kupoko eta kupo orokorreko itxaronzerrendak, betekizunak bete arren adjudikaziodun gertatu ez diren eskatzaileekin. Itxaronzerrendan ordena bat ezarriko da, notario aurrean edo fede publikoaren funtzioa daukan pertsonaren aurrean egindako zozketa baten bidez; horrela, adjudikaziodun batek bere adjudikazioari uko egiten badio edo adjudikaziodun-izaera galtzen badu, zerrenda hori erabiliko da, horiek ordezkatzeko.

## **10.- ARGITALPENA ETA INPUGNAZIOA**

Bai adjudikaziodunen zerrenda eta bai itxaronzerrenda Oriok udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira eta interesatuek 8 eguneko epea izango dute, argitalpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko.

## **11.- ADJUDIKAZIOA**

Behin epe hori pasata, erreklamaziorik ez bada edo erreklamazio horiek erabakitzen direnean, Orioko Udalak adjudikaziodunen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Onarpen horrek irekita uzten du adjudikaziodunetakoren bat kanpoan uzteko aukera, baldin eta, eskrituratzeko garaian, exijitutako betekizunak betetzen ez baditu.

## **12.- DEIALDIA BERTAN BEHERA UZTEA**

Eskari-kopurua eskainitako etxebizitzaren kopurua baino txikiagoa bada, Orioko Udalak bertan behera utz dezake deialdi hau.

## **13.- ARAU OSAGARRIAK**



*Oinarri hauetan jasota ez dagoen guztirako, honako arauak aplikatuko dira: Oriko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantza, 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza – neurriei buruzkoa, eta dagozkion zuzenbide administratiboko arauak eta, kasua balitz, zuzenbide pribatukoak.*

**2.-** Udalaren erabaki honek indarra izateko **BALDINTZA** izango da Oriko udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantzaren 9. artikulua aldaketa behin betiko onartzea, gai-zerrendako 2. gaian jasota dagoen terminotan; hori dela-eta, batera argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, batetik, udal ordenantzaren 9. artikulua berritua eta, bestetik, udalbatzarrak onartu berri dituen oinarri hauek.

**3.-** Goiko paragrafoan ezarritako baldintza betetzen ez bada, udal erabaki hau bertan behera geratuko da, inolako eraginik gabe.

#### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2012KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2011ko urriaren 19ko Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzailean diktaminatu da era honetara: orokorrean, 2012an ordenantza fiskaletako eta beren eranskinetako zerga-tipo eta tasak %3 igoko dira (Euskadiko Autonomia Erkidegoko KPIa, 2010eko irailetik 2011ko irailera bitartean), honako salbuespenekin:

1.- Kontuan izanda 'hutsik' dauden etxebizitzaren gaineko zergaren kuota likidoa handiagoa izan behar duela modu iraunkorrean okupatuta dauden etxebizitzaren edo errentan dauden etxebizitzaren baina, Oriko Udalak borondatea agertzen du Higiezinaren gaineko Zergaren kuota likidoa, pixkanaka, %150eraino igotzeko modu iraunkorrean desokupatuta dauden bizitoki-erabilerako higiezinari, behin Gipuzkoako Foru Aldundiak gaia behar bezala arautzen duenean.

2012an indarrean eutsiko zaie, inolako aldaketarik gabe, 2011n indarrean zeuden Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren familia ugariari aplikatzen zitzaizkien hobariak.

2.- Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga dela-eta, indarrean dagoen foru arauan ezarritako hobariak aplikatuko dira.

3.- Izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren tasa %9tik %10era igoko da.

4.- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak % 3 gehituko dira, orokorrean; baina salbuespen honekin: 14 zaldi fiskaletik gorako tarteetan sailkatuta dauden ibilgailuen tarifak % 5 gehituko dira.

Hala ere, lehen sektoreko ibilgailuei %3ko gehikuntza aplikatuko zaie.



5.- Kontuan izanda erabilera publikoko lur guztiak ez direla berdinak mahai, mahaitxo, aulki, zoladura, lorontzi, parasol edo antzeko instalazioekin okupatzeko, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera bi okupazio-eremu bereiztea proposatzen da:

A eremua: Anibarko Portua, Bikamiota eta Kasko Historikoa.

B eremua: Udalerriko gainerako eremu guztiak, AIU3 Hondartza barne.

Honako berezitasunak aplikatuko dira:

- A eremuan kokatutako establezimendu publikoei %50eko hobaria aplikatuko zaie establezimenduak irekitzeko baimenak emateko tasaren tarifetan.

- A eta B eremuetan kokatuta dauden establezimendu publikoei %3ko gehikuntza aplikatuko zaie, orokorrean. Nolanahi ere, mahai, mahitxo, aulki eta abarrak beren establezimenduaren barruan jasotzen ez dituzten establezimenduetako titularrei %5eko gehikuntza aplikatuko zaie, kokapena kontuan izan gabe.

6.- Aian edo Orion erroldatuta egon, baina ibilgailua beste udalerrri bateko errolda fiskalean alta emanda dutenek aukera izango dute Udalaren eranskina eskuratzeko, denboraldiko 38 euro ordainduta, eta, hartara, beren ibilgailua aparkatu ahal izateko Orioko Antilla hondartzako eta inguruko aparkalekuetan udako denboraldian.

7.- Orioko Udal Musika Eskolako musika-irakaskuntzaren tarifak % 5 handituko dira.

8.- Udal planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— udal tenis eta squash pista erabiltzeagatik tarifak hauek izango dira:

- Tenis pista erabiltzeagatik ..... 4,00 euro/orduko

- Squash pista erabiltzeagatik: ..... 8,00 euro/orduko

9.- Txu-txu trena erabiltzeagatik tarifak hauek izango dira:

- Joan-etorriko bidaia: .....0,60 euro/pertsonako

- Txu-txu trenean iragarkiak jartzeagatik:..... 85,00 euro/moduluko

10.- Ondoko tarifak 'izoztea' proposatzen da 2012. urterako:

- Udal pilotalekuaren erabilera, kasu guztietan, eta Orioko Antilla hondartzako kabinen erabilera.

- Kultur etxeko aretoen erabilera.

- Udalbatzarraren aretoaren erabilera.

- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera



- Udal futbol/softbol zelaiaren erabilera.

Beraz, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, indarrean segituko dute goian aipatutako 2011ko tarifak.

11.- Behar gehien dutenentzako hobariak proposatzen dira zabor eta hondakin solido urbanoen bilketa zerbitzuaren eta ur hornidura zerbitzuaren tarifetan, beren egoera ekonomiko-familiarraren arabera, Lanbide arteko Soldata Minimoa kontuan hartuta eta honako bi zirkunstantzia hauen arabera ponderatuta:

- Familiaren etxebizitzan bizi diren eta erroldatuta dauden pertsonen kopurua

- Familia-unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarreraren kopurua, Lanbide arteko Soldata Minimoarekin alderatuta.

Hori guztia, honako taula honen arabera:

	<b>Hileko soldata, Lanbide arteko Soldata Minimoarekiko erlazioan</b>						
<b>Familia-unitatearen kide kopurua</b>	LSM edo <	LSM + %10	LSM + %20	LSM + %30	LSM + %40	LSM + %50	LSM + %60
<b>1-2</b>	%90	%75	%50	%25	-	-	-
<b>3</b>	%90	%90	%75	%50	%25	-	-
<b>4</b>	%95	%90	%90	%75	%50	%25	-
<b>5</b>	%95	%90	%90	%90	%75	%50	%25
<b>6</b>	%95	%90	%90	%90	%90	%75	%50
<b>7...</b>	%95	%90	%90	%90	%90	%90	%75

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, beren proposamena honako hau delako: 2012rako zerga eta tasa guztiak 'izoztea', batere igo gabe, kontuan hartuta bizi dugun krisi garai gogorra.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Bildu eta Orain talde politikoek adostu duten proposamena zerga eta tasa guztiak, orokorrean, %3 igotzea dela, emandako zerbitzuen kalitateari eutsi ahal izateko; baina, igoera hori samurtzeko, hobariak ezarriko direla behar gehien duten familia oriotarrentzat, beren egoera ekonomiko-familiarraren arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoaren argitan, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko urriaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU**





**ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

**a) Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko idazkaritzan.

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita, bulego orduetan.

**c) Erreklamazioa aurkezteko aukera dutenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

**d) Aurkezteko bulegoa:** Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

**e) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

**5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 10/2011 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 10/2011 espedientea kredituak transferitzeko modalitatean egina dago eta 109.896,88 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko urriaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **SEI ALDEKO BOTO**];



abstentzioak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BOST ABSTENTZIO**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** 10/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 109.896,88 euroko zenbatekoa du.

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

**a) Ikusgai dauden tokia:** Idazkaritza-kontu-hartzailletza

**b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

**c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

**d) Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

**e) Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

**f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, 2011ko irailaren 29ko udalbatzarrean 9/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen bozketan eman zuen bezala, arraroa egiten zaielako Udalaren diruzaintzako soberakina erabiltzea. Bestalde, kritika eraikitzaile bat egiten du 10/2011 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea osatzeko prestatu diren zirriborroak direla-eta; eta kontu-hartzailletza zerbitzuari eskatzen dio, aurrerantzean, kontu gehiago izateko.

Azken horri erantzunez, udal idazkariak hartzen du hitza eta, udalbatzaren kontu-hartzailea denez, adierazten du behar diren neurriak hartuko dituela hurrengo kreditua aldatzeko espedienteak ahalik eta zuzenen prestatuak izan daitezen, indarrean dauden arauen arabera.



## 6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK ALDATZEA 2012RAKO, UROLA-KOSTA ESQUALDEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEAK eskaria aurkeztu du, 2012an auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzea proposatuz; tarifa berrien proposamenarekin batera, ustiaketa kostuen azterketa ere aurkeztu du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko urriaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz; abstentzioak: Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:

**ONARTZEA** 2012an Urola Kosta eskualdeko auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzeko proposamena, GIPUZKOAKO TAXISTEN ELKARTEAK aurkeztu duena. Aldaketa 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera sartuko da indarrean.

Beraz, 2012ko tarifak honako hauek izango dira:

<b>TARIFA URBANOAK 2012</b>			
<b>PROPOSAMENA</b>	<b>GUTXIENeko TARIFA</b>	<b>KILOMETRO BAKOITZEKO</b>	<b>ITXOITEN PASATAKO ORDUA</b>
1. TARIFA	4,9294	1,0519	20,0896
2. TARIFA	5,8678	1,6778	32,7923
3. TARIFA	6,0438	1,7281	33,7761

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

1. tarifa lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

2. tarifa egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara; tarifa hau aplikatuko da, baita ere, igande, larunbat eta jai egunetan, 07:00etatik 22:00etara.

3. tarifa honako ordu hauetan aplikatuko da: a) Ostiraleko 22:00etatik larunbateko 07:00etara. b) Larunbateko 22:00etatik igandeko 07:00etara. c) Jaiegunaren edo



herriko jaiaren bezperan 22:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara. d) Jaiegunaren edo herriko jaiaren 22:00etatik hurrengo eguneko 07:00etara.

## **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN BARNE ARAUDIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Udalaren barne araudiaren azken aldaketa 2003ko uztailaren 17an onartu zuen udalbatzarrak, ezohiko bilkuran, eta orain proposatzen den idazketak eguneratu egiten du orduko araudi hura udal agintaldi honetarako (2011-2015), hainbat gairi dagokionez: udalbatzarraren ohiko bilkuren maiztasuna, Tokiko Gobernu Batzarraren sorrera eta osaketa, batzorde informatzaileen funtzionamendu-arauak eta aholku batzordeen sorrera eta funtzionamendua.

Udalaren barne araudiak antolamendu eta funtzionamendu arau batzuk ezartzen ditu, 'barrurako' direnak, baina ez dutenak ondorio juridiko osorik, barne-araudiaren tramitazioak ez duelako segitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako prozedura (lehen onarpena, jendaurrean jartzea, behin betiko onarpena ohar edo iradokizunik baldin badago, eta osorik argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean); ez da, legez, beharrezko Udalak barne araudi bat izateak, baina komenigarria da estatu mailako legearen erregulazioa osatzeko, Udalaren antolaketari eta funtzionamenduari dagozkion gaietan.

Hori dela eta, udal idazkaria Udalaren barne araudi organiko baten zirriborroa prestatzen ari da, laster udalbatzarkideek azter dezaten; barne araudi organiko hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako arauen arabera tramitatuko litzateke eta, behin Udalak behin betikoz onartu eta gero, osorik argitaratuko litzateke Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; nolana ere, alkatearen asmoa da, bitartean, gaurko udalbatzarrera ekarri den barne araudi hau aplikatzea, onartzen bada.

Idazkariak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: barne araudian esaten denean udalbatzarrak hilero egingo dituela ohiko bilkurak, hilaren azken ostegunean, 20:00etan, komeniko litzatekeela eranstea (orain arte horrela eginda, nahiz idatzita egon ez), alde batetik, abuztuan ez dela udalbatzarraren ohiko bilkurarik egingo eta, bestetik, hilaren azken osteguna jaieguna tokatzen denean, udalbatzarraren ohiko bilkura aurreko lanegunean egingo dela.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak ez duela parte hartuko bozketan, honako arrazoiengatik:

- Denbora gutxi izan dute araudiari emendakinak aurkezteko eta beharrezko kontsulta juridikoak egiteko.
- Nolanahi ere, bere talde politikoak aurkeztu dituen emendakinetako batzuk onartuak izan dira eta beste batzuk ez.



- Gaia ez da diktaminatu dagokion batzorde informatzailean.
- Ez da egin txosten juridikorik, barne araudiaren legezotasuna ziurtatzeko.

Alkateak hartzen du hitza eta bertaratuei azaltzen die zein izan den barne araudiaren tramitazioa (emendakinak aurkezteko epeak eta abar); adierazten du, baita ere, aldaketa batzuk egin dizkiotela aurreko araudiari, oriotarrei aukerak errazteko parte hartzeko, batetik, eta aholku batzordeen sorrera eta funtzionamendua arautzeko, bestetik; eta, azkenik, adierazten du, kontuan hartuta barne araudiak dituen ezaugarri bereziak, izatekotan, horretarako propio sortutako batzorde informatzaile berezi batean aztertu eta diktaminatu behar zela.

Beraz, alkateak esaten du EAJk nahiko denbora izan duela barne araudiaren gaia aztertzeko eta emendakinak aurkezteko.

Azkenik, Amaia Dorronsoro zinegotziak (Bildu) hartzen du hitza eta bertaratuei berriro azaltzen die barne araudiaren gaiak Udalean orain arte izan duen tramitazioa; esaten du, baita ere, bere talde politikoaren asmoa dela, Udalaren barne araudi organikoa indarrean sartzeko den arte, gaurko udalbatzarrean eztabaidatzen ari den barne araudi hau aplikatzea, onartzen bada.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoaren argitan, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU**, Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Izagirre (Orain) udalbatzakideen aldeko botoekin, guztira **SEI ALDEKO BOTO**:

**ONARTZEA** Orioko Udalaren barne araudia; araudiak honela dio, hitzez hitz:

## **UDALAREN BARNE ARAUDIA**

### **UDALBATZARRAK**

*Udalbatzarrak hilero egingo du ohiko bilkura, hilaren azken ostegunean, arratsaldeko 20:00etan, abuztuan izan ezik, hil hori baliogabea baita Udalbatzarra bilkuren ohiko eraginetarako. Egun hori jaieguna izanez gero, ohiko bilkura aurreko lanegunean egingo da.*

*Salbuespenak egitekotan, alderdi guztien onespenearekin egingo dira, eta arrazoi pertsonalek berdin balioko dute udal ordezkari guztientzat.*

### **Ez ohiko udalbatzarrak**

*Gaiaren garrantziak hala eskatuta eta udal talde batek hala eskatuta, ezohiko udalbatzarrak deitzeko konpromisoa hartu behar da. Ezohiko udalbatzarrak alkateak deituko ditu izaera horrekin, bere ekimenez edo udal ordezkariak duten alderdi politikoetako gutxienez bi zinegotzik hala eskatzen badute. Eskabide hori idatziz egin beharko da, udalbatzarraren deialdia zerk eragin duen azalduz, eta idatzia sinatuz.*



*Udalbatzakideek eskatutako ezohiko bilkuraren deialdia lau eguneko epearen barruan egin beharko da, eskaera egin den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Udalbatzarra ez da, inola ere, hamabost egun baino gehiago atzeratuko.*

## **Ohiko udalbatzarrak**

*Ohiko bilkurarako deialdia hileko azken Gobernu Batzarreko bilkuran adostuko da udal taldeen artean.*

*Ohiko bilkurarako deialdia bi lanegun lehenago banatuko da, gutxienez.*

*Gai zerrendan, aldez aurretik diktaminatu, informatu eta dagokion batzorde informatzailean kontsultapean jarritako gaiak bakarrik sar daitezke (mozioak dira salbuespenak). 72 ordu lehenago banatuko da gai zerrenda.*

*Gai zerrendako gaiei buruzko agiri guztiak deialdiaren egun berean egon behar dute udalbatzakide guztien eskura.*

*Batzarraren bilkurak jendaurrekoak dira Idazkaritzak, bilkura egin baino bi lanegun lehenago gutxienez, haren berri emango die herritarrei herriko ohiko komunikabideen bitartez eta herrian jarriko diren informazio taulen bitartez.*

## **Deialdiak nola egin**

*Ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdiak korreo elektronikoa bidez egingo dira. Jaso dela ziurtatzeko, korreo elektronikoa bueltatzeko konpromisoa hartuko du zinegotzi bakoitzak. Horrez gain, eta denengana iristeko asmoz, SMS bitartez ere bidaliko da deialdia. Gai zerrenda eta dokumentazioa alderdi bakoitzaren bulegoan utziko dira.*

## **EZTABAIDAK**

*Udalbatzarraren bilkura hasi ondoren, aurreko bilkurako akta onartuko da.*

*Edozein zinegotzik eskatu ahal izango du, eztabaida garaian, gai-zerrendan sartutako gairen bat kentzea eta bertan agiriak edo informeak sartzea, eta baita gaia mahai gainean geratzea, eztabaida hurrengo bilkurarako utziz. Udalbatzakideen gehiengo soilak eskariaren aldeko botoa ematen badu, ez da gai hori eztabaidatu eta bozkatu beharrik izango. ROF erregelamenduak arautzen duen bezala egingo da.*

*Bai ohiko eta baita ezohiko udalbatzarretan, publikora etorri den edozeinek izango du aukera hitza hartzeko puntu guztietan. Hori egin ahal izateko, puntu bakoitza aztertzen denean eta bozkatu aurretik, edozeinek galderak edo proposamenak egin ditzake gaiaren inguruan. Alkatearen ardura izango da moderatzaile lana egitea.*



*Publikoko norbaitek gairen bat sartu nahi izanez gero, osoko bilkurako gai ordena onartzerakoan proposatu beharko du gaia eta galdera eta eskarien puntura arte itxaron beharko du azalpena emateko.*

## **MOZIOAK**

*Mozio bat eguneko gai zerrendan sartzeko, zinegotzi batek eskatu beharko du, eta udalbatzarraren bilkura egin baino 72 ordu lehenago aurkeztuko da.*

*Hala ere, herriko edozein erakunde, entitate edo biztanlek aurkeztu ahal izango ditu mozioak, Udalbatzarraren gai zerrendan sartzeko. Mozio horiek Udalbatzarrean eztabaidatuko dira zuzenean, edo, bestela, batzorde informatzaile batean diktaminatuko dira aurrena.*

*Mozioaren edukiaren jakinarazpena; proposamenaren egileak mozioaren edukia jakinarazi beharko die udalbatzakide guztiei, bi laneguneko aurrerapenez gutxienez, eta, premiazko ezohiko udalbatzarrak direnean, deialdia egiten den unean.*

*Mozio berezien kasuan (denborak edo egoerak hala eskatzen duen kasuetan), udalbatzarraren gai ordena onartzean proposa daiteke, eta udalbatzarreko gehiengoak hala nahi izanez gero, gai zerrendan sartuko da.*

## **GOBERNU BATZARRA**

*Gobernu Batzarreko bilkuren aztergai zerrenda eta aurreko bilkurako aktaren zirriborroaren kopia bidaliko zaie Udaleko talde politiko guztiei.*

*Aztergai zerrenda bi laneguneko aurrerapenez banatuko da gutxienez.*

*Edozein zinegotzik parte har dezake bilkuretan.*

*Gobernu Batzarra honela osatuta egongo da: alkatea, Oraineko bi ordezkari eta Bilduko ordezkari bat.*

*Gobernu Batzarraren funtzioak: dokumentu honi atxikiko zaizkio gobernu batzarrak izango dituen funtzioak.*

## **BATZORDE INFORMATZAILEAK**

*Batzorde informatzaileek, egiten duten lehenengo bilkuran, bere bileren erregimena ezarriko dute eta horrek indarrean jarraituko du aldatzea erabakitzen ez den bitartean*

*Batzorde bakoitzaren osaketa udaleko talde politikoaren artean dagoen proportzionaltasunaren arabera izango da; hau da, talde bakoitzak lortu duen zinegotzi kopuruaren arabera.*

*Edozein zinegotzi / herritar joan daiteke batzorde informatzaileen bileretara.*



*Batzordeak irekiak izango dira herritar guztientzat. Bertan parte hartzeko eskubidea izango dute bai zinegotziek, eta baita batzordeburuari propio eta aldez aurretik parte hartzea eskatzen dioten kolektiboek eta herritarrek ere. Beste zinegotziei aldez aurretik jakinaraziko zaie zeinek parte hartuko duen.*

*Edozeinek parte har dezakeenez batzordeetan, batzordea hasterakoan, gai zerrenda aurkeztuko da. Gai zerrenda horretan konfidentziala izan daitekeen gai bat egonez gero, batzordeburuari egokituko zaio hala adieraztea eta, ondorioz, puntu hori azkena jarri eta batzordean momentu horretan, alderdietako ordezkari eta udal teknikariak besterik ez dira egongo.*

*Batzordeburuak ahalmena izango du irekitasuna bideratzeko.*

*Batzorde bakoitzeko buruari dagokio gai zerrenda prestatzea. Gai bat, bere izaeraren arabera, bi batzordeetan landu ahal izango da. Alkatearen esku izango da bideratzea non jorratuko diren gaiak.*

*Zinegotziek edota herritarrek gai zerrendan edozein gai sartzea eskatu ahal izango dute.*

*Gutxienik bi lanegunetako aurrerapenez egingo da deialdia eta batzordekideei eta hala eskatzen duten herritarrei banatuko zaie gai zerrenda.*

*Batzorde informatzaileek egindako bilkura guztien aktak egingo dira eta bertako idazkariak izenpetuko ditu.*

*Akta batzordekideei eta hala eskatzen duten zinegotzi eta herritarrei banatuko zaie. Akten arduraduna batzordeburua izango da.*

*Batzorde informatzaileetan hartutako diktamenak dagokion gobernu organora zuzenduko dira. Gaiak bereziak direnean, pasa daitezke Plenora, batzordeak Gobernu Batzarrera bidali baditu ere, Gobernu Batzarrari hala egitea egoki iruditzen bazaio.*

## **AHOLKU BATZORDEAK**

*Arloz arloko plangintza estrategikoa burutzeko eta horren jarraipen zuzena egiteko, arlokako aholku batzordeak eratuko dira.*

*Horien helburu nagusia arloko gaietan sakontzea izango da. Erabiltzaile, kudeatzaile nagusienak eta baita gaiarekiko interesa erakusten duen edonork parte har dezake bilera horietan.*

*Batzorde horien izaera kontsentsuzkoa izango da. Batzorde horien ebazpenak gomendio gisa hartuko dira eta, aho batez erabakitzen diren gaiak, ondoren, dagokion udal batzordean aztertu eta kontuan hartuko dira. Aholku batzordeetako politikarien borondatearen menpe egongo da hori guztia.*





Aholku batzordeak gaiari lotutako zinegotzi batzordeburuek dinamizatuko dituzte; ez da bozketarik egingo bertan, gida lana bakarrik egingo dute.

## **HERRITARREN ESKU-HARTZEA**

Udalbatzak ahalik eta informaziorik zabalena eskainiko du bere jarduerari buruz eta herritar guztiek udaleko bizitzan izan dezaketen esku-hartzeari buruz.

Administrazioaren Prozedurako Legearen arabera, herritar guztiek eskubidea izango dute udal erabakien eta beren aurrerakinen kopiak eskuratzeko eta artxibategi eta erregistroak kontsultatzeko. Idazkariari dagokio erabakitzea, legeak arautzen duen bezala, zer informazio mota eskuratu ahal izango duten herritarrek.

Edozein herritarrek udal ondasun eta eskubideak zaintzeko beharrezko diren ekintzak aurrera eramatea eska diezaioke udal administrazioari.

Udal administrazioak, herritarren interes orokor eta sektorialak babesteko, elkarteen garapena bultzatuko du; horien jarduerari buruz ahalik eta informazio zabalena emango die herritarrei eta, ahal duen neurrian, baliabide publikoez baliatzeko aukera eta diru-laguntzak eskainiko dizkie.

## **ERREFERENDUMAK EDO HERRI KONTSULTAK**

Gaiaren garrantziak hala agintzen duenean, udalbatzarrean hala erabakiz gero eta herriko biztanleen kopuru nabarmen batek hala eskatuz gero (boto emaileen %15), erreferendumak edo herri kontsultak egiteko konpromisoa hartuko du Udalak. Herri kontsulta bidezko erabakia errespetatu eta beteko du Udalak. Udalbatzarrean erabakiko da.

## **INFORMAZIO ESKUBIDEA**

Bai zinegotziek eta bai herritarrek ere (dagokion gaiari buruz), Udalean aztertzen den edozein gaiari buruz informazioa edukitzeko eskubidea daukate, legeak aukera ematen duenaren arabera. Intimitatea eta abar gorde egin behar da.

Talde politiko guztiei hileroko emango zaie egindako ordainketen eta Alkate-Dekretuen berri.

Udalaren edozein organoren bilera egin aurretik, landuko diren gaiei dagokien informazio eta dokumentazio guztia jasoko da. Hori bost egun aurretik jaso behar da, gutxienez. Aurrez eskatuko behar da.

Udalan dagoen edozein informazio eskuratzeko, idatzizko eskaria egin behar da.

Udal burokraziak sortzen dituen eragozpenak kendu egin behar dira.



EAJ talde politikoko zinegotziek (Redondo, Ostolaza, Salsamendi, Cotado eta Etxeberria) ez dute bozketan parte hartu, goiko azalpenean emandako arrazoiengatik.

## **8.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ELEKTRIZITATEA SORTZEKO EGUZKI-PLAKEN INSTALAZIOA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposatzen den aldaketa udal ordenantzaren 4. artikuluari dagokio.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2011ko urriaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** elektrizitatea sortzeko eguzki-plaken instalazioa arautzen duen udal ordenantzaren 4. artikulua aldaketari; artikulua idazketa berriak honela dio, hitzez hitz:

### ***4. artikulua. Baldintza tekniko eta estetikoak.***

*Plaka fotovoltaikoak ezartzeko baimendutako gehienezko azalera 50 metro karratukoa izango da, eta unitate bakoitzaren biltzeko azalera gehienez ere 25 metro karratukoa izango da.*

*Goiko paragrafoan adierazitakoak baino azalera handiagoak ere baimenduko dira eraikin publikoetan, baldin eta instalazioaren ezaugarriek ez badiote kalte egiten eraikinaren estetikari.*

**2.- JENDAURREAN JARTZEA** udal ordenantzaren aldaketa hori, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharrak eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita. Udal ordenantzaren aldaketa hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantzaren aldaketa, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

## **9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Jon Redondo zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza eta bi galdera egiten ditu: Aurrena, idazkariari galdetzen dio ea zertan diren bere talde politikoak eskatu zituen bi txosten juridikoak; idazkariak erantzuten dio, esanez bihar bertan jasoko dutela bi



txosten horietako bat, Udalaren batzorde informatzaileen funtzionamendu arauetara buruzkoa, eta bigarrena ere ahalik eta azkarren jasoko dutela; idazkariak adierazten du kontuan hartu behar dela uztailaren bukaeran eskatu zituela EAJk bi txosten horiek, abuztuan idazkaria oporretan izan dela eta idazkaritzan lanak pilatu egin direla eta, hortaz, bi txosten horiek garrantziaren arabera hurrenkeran bideratuko direla.

Bigarren galdera udalbatzarraren akte buruzkoa da, oraindik banatu gabe baitaude; idazkariak erantzuten dio, esanez dagoeneko eginda dituela falta diren akten zirriborroak eta orain bi hizkuntza ofizialetan informatizatzea baizik ez dela falta.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du, alde aurretik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz], urgentziakotzat jo ondoren:

## **10.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREAREN —MUNTO— GARAPEN URBANISTIKOAK SORTU DITUEN BI KALE BERRIEI IZENA EMATEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektorearen —Munto— garapen urbanistikoak bi kale berri sortu ditu eta horiei izena ematea proposatzen du alkateak, sektore horren garapen urbanistikoko sustatzaile pribatuek egin duten eskariari erantzuteko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumena, Ogasuna eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2011ko urriaren 10ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

**ONARTZEA** Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektorearen —Munto— garapen urbanistikoak sortu dituen bi kale berriei izen hauek ematea: Munto kalea eta Palota kalea (planoaren arabera).

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu gabe, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**